

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5955

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 15ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2011. urteko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen 2011ko ekainaren 14ko Kulturako sailburuaren Aginduaren babesean «Agertu» modalitatean emandako diru-laguntzen erabakiaren berri ematen duena.

AURREKARIAK

1.– 2011ko ekainaren 24an argitaratu zen EHAA 2011ko ekainaren 14ko Kulturako sailburuaren Agindua, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2011. urteko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

2– 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko legearen testu bategina onartzen duenaren 49.2 artikuluan ezarritakoa jarraituz, laguntzak emateari edo ukatzeari buruzko erabakiak, kasuan kasuko laguntzak arautzen dituzten arauak besterik esaten ez badute behintzat, EHAA 2011ko ekainaren 14ko Kulturako sailburuaren Agindua argitaratu beharko dira.

Horiek horrela izanda, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 14ko Aginduaren babesean «Agertu» modalitatean onuradun suertatu direnen zerrenda eta emandako laguntzak (I. eranskina) eta ukatu diren eskabideak (II. eranskina) argitara ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 15a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

2011ko abenduaren 13a, asteartea

I. ERANSKINA
 "AGERTU" MODALITATEKO LAGUNTZAK

ESKATZAILEA	LAGUNTZA JASOKO DUEN PROIEKTUA	LAGUNTZA
Asociación para la promoción de cortometrajes Caóstica	Exhibición de cortos del Festival Caóstica en el Campo de Cebada con el colectivo Zuloark	6.000,00 €
ESKENA, Empresas de Producción Escénica Asociadas de Euskadi	Exhibición de "Harrobia Eskena" en 25ª edición de Feria Internacional de Teatro y Danza de Huesca.	1.329,94 €
Kdenetarik Produksioak, S.L.	Hiru zentzu-tres sentidos	6.000,00 €
Guztira:		13.329,94 €

II. ERANSKINA
 LAGUNTZA ESKABIDE EZEZTATUAK

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	ARRAZOIA
Asociación "La Hacería" Artes Escénicas de Bilbao	Exhibición "So In Love"	2011ko ekainaren 14ko Aginduaren 39.2 artikuluan ezarritako kanporatze arrazoia dela eta
Leire Mesa Ramírez	Antropología circense	2011ko ekainaren 14ko Aginduaren 39.1 c) eta 40. artikuluetan ezarritakoa ez betetzeagatik
M-etxea Arkitekturaren Ikerketa Elkartea	Proceso de activación de espacios industriales en Eibar	2011ko ekainaren 14ko Aginduaren 39.1. artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik